

Prentsa oharra

Nota de prensa



GAITZESPENIK GOGORRENA, ZENBAIT "BURUGABEK" URGULL MENDIAN EGINDAKO TRISKANTZA DELA-ETA

Donostialdeko Sozialisten bozeramaileak beren gaitzespenik irmo eta indartsuena adierazi du, Urgull mendiko ondasun publikoei kalte handiak eragin dizkieten burugabe batzuek gaur gauean egindakoagatik. Nabarmendu behar dugu Urgull mendia donostiar guztien ondarea dela.

Arratsalde erdian, ikurriña dagoen zabalgunean Dumper makina bat manipulatzeko ari zen langile bati gazte batek hitz egin zion, eta inguruko beste gune batera eraman zuen, "harriak erori zirela" egiaztatzeko. Orduan, beste gazte batek makinaren giltzak lapurtzeko aprobetxatu zuen.

Garmendiak adierazi duenez, gauean, makina aipatutako zabalgunetik beste muturrera eraman zuten, bidean zegoen guztia txikituz: bankuak, paperontziak, parkeko seinaleak, markesina bat, autogarbitzailea den komun berria –beste batzuetan ere suntsitu izan da–, Damen Bateriaren ondora iritsi arte. Bertan, makina erre zuten, kanoi historiko baten ondoan. Zorionez, kanoiak ez du kalte nabarmenik izan.

Lehenengo zenbatespen batean, eragindako kalteak 100.000 eurotik gorakoak dira, eta horiei Urgullen lan egiten zuen enpresaren ondasunak eta makineria gaineratu behar zaizkie. Jada aurkeztu da salaketa Udaltzaingoa, arduradunak identifika ditzan.

"Donostiako ondarearen aurkako bandalismo-ekintza larri horien aurrean, irmotasunez jokatu behar dugu. Ez da lehen aldia gizabidearen kontrako antzeko ekintzak deitoratu behar ditugula, eta espero dugu Udaltzaingoak arduradunak identifikatu ahal izatea, Justiziaren esku jarri daitezen", adierazi du Marisol Garmendiak.